

6. Buletina Apirila 2024

Euskadiko Behatoki Turistikoak **2024ko otsaileko** Euskadiko eskaintza eta eskari turistikoari buruzko koiuntura-adierazle nagusien azterketa laburra egin du, eta araututako ostatu turistikoaren guztizkoari buruzkoa.

2024KO OTSAILA



2024ko otsaila **igoera garrantzitsuekin sarreratan** itxi da, + **%7,4** (260.349), **gaualdietan, +%3,6** (501.178) eta **plazakako okupazio-mailan, + % 3,4** (%28,47). Baina emaitza positibo hauekin batera, **eguneko eskaintako plazen beherakada** ere ikusten da, -%1 (48.371).



Aterpetxeak dira eskariaren eta eskaintzaren adierazle guztietan **gora egin duten bakarrak. Hotelek gora egin dute turisten eta gaualdien kopuruetan** baina **behera egin dute plazakako okupazio-mailan eta egunekoan** ere, **gutxiago eskaintzen** dute. **Kanpinak** emaitza **negatiboak** dituzte **adierazle guztietan**, **gaualdietan izan ezik. Apartamentu turistikoek behera egin dute gaualdi kopuruan eta okupazio mailan**, baina **gora egin dute sarreretan eta plaza gehiago eskaini** dute. Azkenik, **landaturismoan**, otsaila **beherakadekin** ixten da eskariaren eta eskaintzaren adierazletan, **plazakako okupazio-mailan izan ezik.**

Donostia da eskaintzaren eta eskariaren adierazleetan **hazkundeak dituen helmuga bakarra. Bilbok**, aldiz, **okupazio-maila mantendu** du baina beherakadekin eskaintako plazetan eta gaualdietan.

Euskal Kostaldean gora egin dute eguneko plazen eskaintzak, turisten kopuruak eta gaualdien kopuruak, baina hemen ere arean behera egin du okupazio-mailak. **Euskadiren barnealdean positibo bakarra plazakako okupazio-maila da. Eta, Arabako Errioxan, behera egin dute eskaintza eta eskariaren adierazle guztiek.**

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA. 2024KO OTSAILA

10 MERKATU IGORLE NAGUSIAK

JATORRIAK	SARRERAK 2024 vs 2023	GAUALDIAK. 2024 vs 2023
Madrilgo Erk.	%2,8	%2,2
Euskadi	%0,1	%6,4
Frantzia	%1,4	%2,9
Katalunia	%8,4	%5
Gaztela eta Leon	%0,6	%1,8
Andaluzia	%21,4	%25,5
Nafarroa	%10,1	%9,4
Valentziako Erk.	%21,4	%18,5
Galizia	%9	%8,4
Aragoi	%10	%16,8

10 turistatik ia 7 merkatu nazionalekoak dira. Nazioarteko merkatuak % 11ko urte arteko hazkundea izan du, eta otsaileko **kuotarik altuena** lortu du, % 34.

10 merkatu igorle nagusien artean, nazioarteko merkatu bakarra dago, Frantzia, hirugarren postuan. **Bisitari-kopuruan behera egin duten merkatu igorleak barneko merkatua (Euskadi), Gaztela eta Leon eta Andaluzia** dira. **Gau-kopuruan jaitsi direnak barneko merkatua (Euskadi), Andaluzia eta Aragoi** dira.

Sailkapenaren liderrak, ordena honetan: **Madrilgo Erkidegoa (%14,6), barneko merkatua (Euskadi) (%14), Frantzia (%11,2), Katalunia (%7,9) eta Gaztela eta Leon (%4,7).**

2024KO URTARRILA-OTSAILA METATUA



2024ko, urtarrileko eta otsaileko metatuak **igoera handiak** izan ditu **sarreretan, +%5,8** (483.672), **gaualdietan, +%4** (947.286), eta **plazen okupazio-mailan, +%3,4** (% 26,00). Baina **eguneko eskaintako plazak %0,7** jaitsi dira (46.955).



Apartamentu turistikoek gora egin dute, bai eskariaren adierazleetan, bai eskaintzaren adierazleetan, plazen okupazioaren beherakada txikia izan ezik. **Hotel-establezimenduek gora egin dute eskariaren adierazle guztietan**, baina **plaza-eskaintzak behera egin du. Landa-ostatuak behera egin dute eskariaren eta eskaintzaren adierazle guztietan. Kanpinak** emaitza **negatiboak** dituzte plazen okupazio-mailari dagokionez, baina turisten eta gaualdien kopuruetan gora egin dute. Aterpetxeek **igoera handiak** izan dituzte eskariaren adierazleetan, baina jaitsi egin dira eskaintako plazetan.

Vitoria-Gasteiz eta Donostia dira eguneko eskaintako plazak gehitu dituzten helmuga bakarrak, eta **eskariaren adierazle guztietan ere gora egin dute. Bilbok**, aldiz, **gora egin du okupazio-mailan**, baina **behera egin du sarreretan, gaualdietan eta eskaintako plazetan. Euskal Kostaldean gora egin du turisten eta ostatu-gauen kopuruan**, baita **okupazio-mailan** ere. **Euskadiko barnealdeak plazen okupazio-maila soilik itxi du modu positiboan.** Eta, **Arabako Errioxaren kasuan, jaitsi egin da eskaintzaren eta eskariaren adierazle guztietan.**

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA. 2024KO URTARRILA-OTSAILA METATUA.

10 MERKATU IGORLE NAGUSIAK

JATORRIAK	SARRERAK 2024 vs 2023	GAUALDIAK. 2024 vs 2023
Euskadi	%2,8	%7,8
Madrilgo Erk.	%1,7	%1,6
Frantzia	%7,9	%9,6
Katalunia	%6,3	%1,7
Gaztela eta Leon	%0,3	%1,6
Andaluzia	%20,7	%24,2
Nafarroa	%8,5	%8
Valentziako Erk.	%15,1	%11,6
Aragoi	%10,7	%14,2
Galizia	%4,9	%5,5

10 turistatik ia 7 merkatu nazionalekoak dira. Nazioarteko merkatuak % 11ko urte arteko hazkundea izan du.

10 merkatu igorle nagusien artean nazioarteko merkatu bakarra dago, hirugarren postuan dagoen **merkatu frantziarra. Turisten kopuruan behera egin duten merkatu igorleak honako hauek dira: barne-merkatua (Euskadi) eta Andaluzia. Gau-kopuruan behera egin duten merkatu igorleak honako hauek dira: barne-merkatua (Euskadi), Andaluzia eta Aragoi.**

Rankingaren buruan daude, ordena honetan: **barneko merkatua (Euskadi) (% 14,9), Madrilgo Erkidegoa (% 14,4), Frantzia (% 10,7), Katalunia (% 7,7) eta Gaztela eta Leon (% 4,5).**